

Bizi et le Plan Climat Air Energie Territorial Pays Basque

Pour une stratégie et un plan d'action ambitieux

Un plan climat à l'échelle d'un territoire, comme le Pays Basque nord, doit être un levier pour construire une stratégie locale partagée par les institutions, les acteurs et les actrices du territoire, les citoyennes et les citoyens.

Il doit permettre de bien cerner les enjeux du territoire, son bilan énergétique, son bilan carbone, ses émissions de gaz à effet de serre et ses émissions polluantes. Les diagnostics réalisés démontrent la réalité du changement climatique aux élu·e·s, habitant·e·s et citoyen·ne·s, et quels sont les effets que l'on observe déjà sur le territoire.

L'ensemble des acteurs doit accélérer le pas, s'intégrer au plan d'action pour construire la métamorphose écologique du territoire, pour en faire un territoire résilient et pour limiter les effets du changement climatique.

Le prochain mandat municipal et celui de l'agglomération Pays Basque seront décisifs pour lancer la mise en œuvre de ce plan climat : le coût de l'inaction serait bien plus fort que le montant des investissements à réaliser pour atteindre les objectifs.

Bizi s'est associé aux travaux du PCAET et a participé activement dans le cadre de la concertation à définir la stratégie souhaitable. Nous avons apprécié le cadre de concertation offert aux acteurs et actrices du territoire et les évolutions successives des travaux, intégrant un certain nombre de leurs apports et réflexions.

Notre scénario de transition écologique à 2050 doit permettre au Pays Basque nord de :

- devenir un territoire résilient au changement climatique,
- devenir un territoire neutre en carbone, à énergie positive, 100% renouvelable, moins polluant et sans précarité énergétique

C'est un projet de territoire souverain, solidaire et soutenable. Ce scénario vise la souveraineté alimentaire, la souveraineté économique et la souveraineté énergétique.

Le PCAET doit s'engager pleinement à limiter les causes et les effets du changement climatique

Aujourd'hui, le PCAET s'oriente vers ces trajectoires. La stratégie énergétique proposée est satisfaisante. Bizi s'associera d'ailleurs aux actions qui seront mises en œuvre pour atteindre un équilibre énergétique 100% renouvelable à l'horizon 2050 et participer à la définition du futur mix énergétique.

Pour autant, il reste un point clef sur lequel la stratégie proposée n'est pas encore à la hauteur des ambitions politiques annoncées et des attentes citoyennes : il s'agit de la trajectoire carbone.

Le PCAET propose une baisse des émissions de CO2 très significative concernant les émissions

dites énergétiques. Il faut saluer notamment la baisse des émissions des secteurs résidentiel et transport, dans des proportions très ambitieuses. Mais il reste à nos yeux une équation à résoudre pourtant très importante, celle du bilan annuel de la séquestration du carbone qui ne permet pas d'atteindre l'équilibre à horizon 2050.

Bizi s'associera donc au PCAET Pays Basque sous réserve qu'il intègre, dans les phases de travail à venir, l'objectif de neutralité carbone. Cela conditionne la participation pleine et active du Pays Basque à la lutte contre le dérèglement climatique.

Toutes les clefs sont à portée de main pour y arriver. Pour exemple, le projet alimentaire de territoire lancé vise la souveraineté alimentaire et favorise l'agroécologie. Le défi de l'agriculture, dans sa participation à la lutte contre le changement climatique, est de stabiliser ou même augmenter sa capacité à stocker le carbone et baisser ses émissions de méthane. La profession agricole et la collectivité affichent aujourd'hui leur détermination à faire évoluer le modèle, et cela doit se voir dans les objectifs stratégiques du PCAET. De plus, il est impératif de préserver les puits de carbone du Pays Basque, que sont les forêts, les terres agricoles et les zones humides.

Vers un Plan Climat exemplaire

En s'intégrant à la concertation du PCAET, Bizi s'inscrit dans une démarche pragmatique. Il reste néanmoins plusieurs enjeux majeurs pour lesquels ses militant.e.s s'attacheront à faire évoluer les paradigmes.

Le premier concerne l'artificialisation des sols et la consommation de l'espace. Le PCAET reste flou et reporte la problématique au SCoT. C'est pourtant un élément clef pour atteindre la neutralité carbone et s'assurer que le Pays Basque protège son agriculture, ses paysages et sa biodiversité. Le territoire devra s'engager au plus vite dans l'objectif « zéro artificialisation nette », en diminuant le nombre de logements vacants, en misant sur le renouvellement urbain, la densification et en "re-naturalisant les friches" qui ne sont plus des stocks fonciers.

De même, le Programme Local de l'Habitat prévoit la construction de 20 000 résidences secondaires neuves d'ici 2050, en restant sur la trajectoire tendancielle. Cette hypothèse n'est pas acceptable et toutes les actions possibles doivent être mises en œuvre pour enrayer ce phénomène.

Dans la même veine, l'évolution du tourisme et ses effets sont inquiétants. Être une destination touristique internationale, c'est développer une consommation énergétique et des émissions de GES notamment liées aux déplacements en avion, voire en jet privé.

Enfin, pour refléter complètement l'impact carbone territorial, nous demandons que le suivi et l'évaluation du PCAET du Pays Basque se réalise en intégrant les émissions indirectes (les émissions de fabrication des produits importés, les émissions du transport amont et aval des marchandises etc.) relevant du scope 3.

Relever tous ces défis permettra au Pays Basque de s'investir pleinement dans la lutte contre le changement climatique à l'échelle planétaire, mais aussi d'agir pour moins de pollutions atmosphériques locales et donc améliorer la santé des habitants. Au delà des émissions du secteur des transports et du secteur résidentiel qui doivent être réduites, il faudra aborder la problématique des phytosanitaires et des pesticides.

En conclusion

Bizi apprécie le processus de concertation mis en place pour définir le Plan Climat Air Energie Territorial Pays Basque. **Une grande partie de ce Plan**, proposé à l'adoption de la Communauté d'agglomération Pays Basque ce samedi 1er février 2020, **va dans le bon sens. Bizi le soutient donc globalement, mais conditionne ce soutien à l'intégration postérieure de l'objectif de neutralité carbone**, au cours des futures phases de concertation et d'approbation prévues à partir de février 2020. Dans ce cas là, Bizi répondra présent pour s'engager dans le plan d'action du Plan Climat. Pour notre part, nous proposons notamment de continuer notre démarche d'évaluation citoyenne - Hitza Hitz - et l'étendre au périmètre d'action du PCAET.

Dans l'immédiat, nous appelons également l'ensemble des collectivités actrices du Plan Climat à s'engager dans le cadre du Pacte de métamorphose écologique 2020-2026. Pour promouvoir ce Pacte, Bizi organisera une marche à travers le Pays Basque nord qui débutera le lundi 2 mars à Mauléon, passera par Ustaritz le jeudi 5 à l'occasion de la soirée de signature officielle du Pacte par les différentes listes municipales et se terminera le samedi 7 à 15H00 par une manifestation festive et populaire à Bayonne. **Une campagne active aura lieu dès le mois de février** pour appeler les citoyennes et les citoyens à **vérifier avant de voter les 15 et 22 mars prochain si les listes se présentant à leurs suffrages ont signé ce Pacte de métamorphose écologique.**

Bizi eta Ipar Euskal Herriko Lurraldeko Klima Aire Energia Plana

Estrategia eta ekintza plan handinahiak

Ipar Euskal Herria bezalako lurralde mailako Klima Plan bat, Instituzioek, lurraldeko eragileek eta herritarrek partekatzen duten tokiko estrategia baten eraikitzeke palanka izan behar da.

Plan horrek lurraldearen erronken argitzea ahalbidetu behar du, hots, lurraldeko bilan energetikoa, karbono bilana, berotegi efektuko gasen eta kutsaduren isurketak konprenitzea. Haren baitan eginak izan diren diagnostikoez, aldaketa klimatikoaren errealitatea hautetsiei, biztanleei eta herritarrei frogatzen dute, eta, gure lurraldean jadanik zer ondorio ikusten ditugun erakusten dute.

Eragile guzietan abiadura handitu behar dute, lurraldearen metamorfosi ekologikoaren eraikitzeke ekintza planan sartu, lurralde honek aldaketa klimatikoari aurre egiteke eta azken honen ondorioen

mugatzeko.

Datorren herri eta elkargo mailako kargualdiak erabakigarriak izanen dira Klima Plan honen martxan ezartzeko: deus egin gabe egoitearen kostua askoz handiago izanen da helburu horien lortzeko behar diren inbertsioei konparatzen badugu.

Bizil, Klima Planaren eraikuntza lanei batu da eta aktiboki parte hartu du hitzartze testu inguruan desiragarri den estrategia baten definizioan. Preziatu dugu lurraldeko eragileei eskainia izan zaien hitzartze kuadroa, eta lanen ondoz-ondoko eboluzioa, eragileen zenbait ekarpen eta gogoeta integratuak zirelarik.

2050eko dugun trantsizio ekologiko gertakizunak Ipar Euskal Herria ahalbidetu behar du:

- aldaketa klimatikoari egokitzen den lurralde batean eraldatzen,
- karbono ikuspegitik neutroa, energiaren arloan positiboa eta %100 berriztagarria, kutsadura guttiagorekin eta energia prekaritaterik gabea den lurralde bat bilakatzen.

Lurralde burujabe, solidario eta jasangarri baten proiektua da. Gertakizun honek elikadura, ekonomia eta energia burujabetzak xedetzat ditu.

Lurraldeko Klima Aire Energia Plana osoki engaiatu behar da aldaketa klimatikoaren jatorrien eta ondorioen mugatzen

Gaur egun Klima Plana ibilbide horiei buruz doa. Proposatua den estrategia energetikoa gogobetegarria da. Gainera, Bizik parte hartuko du 2050eko %100 berriztagarria den oreka energetiko baten lortzeko plantan emanak izanen diren ekintzetan eta geroan erabiliko diren energia iturri ezberdinen definitzean.

Hala ere, puntu gako edo garrantzitsu batentzat, proposatua den estrategia ez da aitzinean eman diren anbizio politikoaren eta herritarren nahien heinekoa: karbono ibilbideaz ari gara.

Klima Planak proposatzen du CO2 isurketen apaltze esanguratsu bat energiaren arloko isurketei dagokienez. Azpimarratu behar da bereziki, bizitegien eta garraioen arloko isurketen apaltzea, proportzio biziki anbiziotsuetan. Baina, gure iritzi, ekuazio biziki garrantzitsu bat oraino konpontzekoa da. Hori da, karbonoaren biltzearen urteko bilanarena, zeren ez du ahalbidetzen 2050eko orekaren lortzea.

Bizik bat egiten du Ipar Euskal Herriko Klima Planarekin, azken honek, etortzekoak diren lan fase ezberdinetan, karbono neutraltasunaren helburua konduan hartzen badu. Horrek baldintzatzen du Ipar Euskal Herriaren parte hartze oso eta aktiboa klima nahasmenduaren kontrako borrokan.

Gako guziak eskuragarri dira horren lortzeko. Adibidez, plantan emana izan den lurralde mailako elikadura proiektuak elikadura burujabetza du xedetzat eta agroekologia laguntzen du. Laborantzaren desafioa, aldaketa klimatikoaren kontrako borrokan, bere metano isurketen ttipitzea eta bere karbonoaren biltzeko gaitasunaren handitzea da. Laborantzaren sektoreak eta kolektibitateak gaur ereduaren aldatzeko beren determinazioa argiki erakusten dute, eta hori

agerian izan behar da Klima Planaren helburu estrategikoetan. Horrezgain baitezpadakoa da oihanak, laborantza lurak eta eremu hezeak diren Ipar Euskal Herriko karbono putzu edo zuloen babestea.

Klima Plan eredugarri bati buruz

Klima Planaren hitzartzean parte hartuz, Bizi! desmarxa pragmatiko batean kokatzen da. Halere, Biziren militanteek segituko dute paradigmen alda arazten oraino gelditzen diren hainbat erronka nagusirentzat.

Lehen erronka lurren artifizializazioari eta eremuen kontsumoari lotua da. Klima Plana lauso gelditzen da eta Lurraldeko kohesio-eskemari buruz igortzen du problematika. Alta, giltza-elementua da karbono neutraltasuna lortzeko eta Ipar Euskal Herriak bere laborantza, bere paisaiak eta bioaniztasuna babesteko. Lurraldea beharko da ahal bezain laster engaiatu "zero artifizializazio garbi" helburuari so, etxebizitza hutsen kopurua apalduz, hiri-arraberritzearen eta dentsifikazioaren apostua eginez, eta lur erreserbak gehiago ez diren alfer utzitako lurren ber-naturalizazioa lortuz.

Ber maneran, Euskal Bizilekuen Tokiko Programak aintzin ikusten du 20 000 bigarren etxebizitza berriren eraikuntza hemendik 2050era, oraiko joera jarraituz. Hipotesia hau ez da onargarria eta fenomeno horren gelditzeko plantan eman behar dira posible diren ekintza guziak.

Hats beretik, turismoaren eta bere ondorioen bilakaera kezagarriak dira. Nazioarte mailako turismoaren helburu izaiteak erran nahi du energia kontsumoa eta hegazkinezko edo jet pribatuekilako bidaiak eta berotegi efektuko gasen isurketak garatuko direla.

Azkenik, lurraldeko karbono inpaktoaren irudikatzeko, galdegiten dugu Ipar Euskal Herriko Klima Planaren jarraipena egina izan dadin zeharkako berotegi efektuko "Scope 3" eremuko gasen isurketak (hots inportatuak diren produktuen ekoizpenaren, eta merkantzia horien garraio eta biziraupen fase ezberdinen isurketak) konduan hartuz.

Desafio guzi horien altxatzeak ahalbidetuko du Ipar Euskal Herriari mundu mailako aldaketa klimatikoaren kontrako borrokan parte hartzea, baina ber maneran, tokiko mailan atmosfera kutsadura guttiagoren alde ekitea eta ondorioz, biztanleen osasunaren hobetzea. Apalduak izan behar diren garraioen eta etxebizitzaren sektoreetako isurketetarik harat, fitosanitarioen eta pestiziden problematika aipatu beharko da.

Ondorioz

Bizik begi onez ikusten du Ipar Euskal Herriko Lurraldeko Klima Aire Energia Plana definitzeko plantan ezarritako hitzartze prozesua. 2020ko otsailaren 1ean, Euskal Hirigune Elkargoan onartua izaiteko gisan proposatuta den **Plan horren zati handi bat** norabide egokiarekin da. **Beraz, Bizik orokorrean onartzen du, bainan laguntza hori baldintzatzen du karbono neutraltasunaren helburuaren berantagoko integratzearekin**, hau sartu beharko baita 2020ko otsailetik goiti aurreikusitako hitzartze eta onarpen faseetan. Kasu honetan, Bizi engaiatuko da Klima Planaren

ekintza planan. Gure aldetik, Hitzaz Hitzaz, gure herritar ebaluazio prozesua jarraitzea eta delako Klima Planaren ekintza eremurari hedatzea proposatzen dugu.

Oraingoz, Klima Planaren eragile diren kolektibitate guztiak deitzen ditugu Metamorfosi Ekologikoaren 2020-2026 Itunaren baitan engaiatzera. Ituna sustatzeko, Bizik martxa bat antolatuko du Ipar Euskal Herrian zehar. Martxoaren 2an, astelehenez, Mauletik abiatuko da, Uztaritzen iraganen da martxoaren 5ean, ostegunez, herrietako zerrenda desberdinek Ituna ofizialki izenpetuko duten gauean. Larunbatean, martxoaren 7an Baionan, 15:00etan, manifestaldi alai eta herritar batekin bukatuko da. **Otsailean, kanpaina aktiboa burutuko da** herritarrak abisatzeko **martxoaren 15 eta 22an, bozkatu aitzin, so egin dezaten aurkezten diren zerrendek Metamorfosi Ekologikoaren Ituna izenpetu dutenetz.**